

ERRENTERRIAKO XOXUA

Pello Artetxe «URDANETA»

Orain dala 68 edo 70 urte gertaturiko zerbaitek ezer esaten diotenezako da nere lantxo au. Elzo Azpiazu'tar Joxe, «Errenteri'ko Xoxua» izen-ordekotzat erabili zigunaren aipamen batzuk ain zuzen.

1914-9-23 garreneko «Boletín Oficial de Guipúzcoa» dalakoan azaltzen denez, maixu baten bearra zegoen Errenteri alde ontan eta dei orri erantzunaz, zortzi azaldu ziran plaza orren jabe egin nairik.

Gaurko irabaziei begiratuaz, irabazi parregarriak ziran arren, orixe izan ziteken jendeari ortara bultza zion arrazoia. Gogoan izan, urte guztiko irabazia, milla pezeta zeukatela (URTEKO MILLA PEZETA), baiña Errenteri orduan ere Errenteri izan eta asmatu zuten zerbaite berezia.

Legezko MILLA pezetako orrez gainera, beste berreun ematen zizkion udaletxeak bere gogoz eta beste irureun, gau-eskolak ematearren. Gau-eskola auetan, Aritmetika eta Geometria erakutsi bear zien ikasle elduei.

Orra nola antolatzen zituzten gauzak, irabaziak batetik bateterdira jasoaz, «ez jan eta ez lan» egon bearrean «jan eta lan» egin zezaten erriko maixuak.

Beste gauza bat: Bestela berdín izan ezkeru, euskera zekiana artuko zutela ere agertzen da boletín ortan bertan. Gaur zenbait tek gauza berria dala uste izarren, ez dugu atzo goizeko kontua.

Zortzitatik bi euskaldun gelditu ziran azkenerako; bat Urretabizkaia ta Elzo bestea. Prantzesa zekin lenengoak eta besteak musika. Eztabai gogorrek erabili ondoren, musikazaleak geiengoz irabazi zuten udaletxeko auteskundera.

Eztzitziatzen damutuko noski bere aldeleei, musika zale baldin baziran beintzat, maixu berriak erabili zigun joertzaz.

Ipuietan kontaktzen diran gertaerak badakizute nola izaten diran «maitagarri» edo oietakoak ikuitzen duten guztia urre biurtzen dutenak eta abar?

Orran antzeko zerbaite egiten zigun Elzo maixuak ere, bere ingurura urbiltzen ziranekin; danak kantari jartzen zitun, itxurak diranez.

Bi urte egin zitun Errenteri'n eta tarte ortan, garai artan ain ospetsua zan Valdes'en meza kantatzea lortu omen zun. Baiña ortarako jokabide polit bat erabiltzen ere bazekin gure maixu jaunak.

Ikastaldietara zijozten gazteei, ez meza bakarrik, kalean, etxean edo naiz sagardotegian abesteko erako zenbait abesti erakusten zizkieten. Ez abestiak erakutsi bakarrik, baita nola abestu bear zuten ere erakusten zion.

Oietako batekin izanak izan bear zitun bere gora-beerak, guri esan digutenez beintzat. Gaur ere oraindik zenbait tokitan ezagutzen diran antzera ezagutzen zuten artean alkar, gaur ezinezkoa bada ere, izen-ordez edo izen goitiz.

Eta orra or, nola erori zitzaigun gure maixu berria «arri labaiñetan». Guri onela kontatu ziguten eta guk erosi ainbestean saltzen dugu, entzun bezela kontatuaz.

Abasti ezagun bat, taldean abesteko oso polita, Elzo onek oituru zun bezela, naiz letra ta naiz musika berak jarri ondoren erakutsi zien bere eskola umeei, baita oek abestu ere batean eta bestean, Goiko kaleko Txepetxaneko Madalen'en belerrietara iritxi zan arte.

Ain zuzen ere, abesti onen izenburua bera ere alakoa bai-zan. «Madalen Berritxu'». Bere asiera berriz, «Goiko kaleko/Txepetxaneko/Madalen».

Zertarako jarraitu? Or doakizute abestia, argitaratua izan zan bezela, baiña badakigu, asko dirala oraidik Errenteri'n, gauz oetaz oroitzen diranak, agian abesten ibilli ziran aietakoak ere bai noski.

Etzuten izan bear nolanaikoak, emakume aren asarrea ta ixkanbilla, bere sullaren ustai zikiñak aipatzen zituen abestia entzutean. Izan ere garai artan, plazako iturritik eramandako ura etxean erabiltzen zanean alegia, gauza sakratuak ziran sullaren usteiak, kontuz kolore oria zikintzearekin.

Maixua berria zala-ta etzuala inor ezagutzen, etzekiala etxeen izenik eta abar, nolabait baretua izan bear zuten gure andre Madalen, baiña etzuan gozoa izan bear aurrenetik.

Gertatu zanagatik edo ez dakigu zergatik, abesti au ez da azaltzen «Euskal-Esnalea» zeritzan aldizkarian, abestu aidan bezala. Emakumea ez mintzearren edo beintzat, onela agertzen zaigu:

Atzo goizan
Iturritikan
Zetoren
Goiko-kaleko
Martín-eneko
Madalen
Esaten,
Etxeko lanak
Zeudela danak
Egiñak...

Baiña sullaren
Uztayak zeuden
Zikiñak.
Sorgin ark.
Ez ote daki
Lanak egiñak
Daudenian
Ez dula izan oi
Sullak zikiñik
Uztayian?

Amaika alditan
Esan oi zuan
Gure amonak
Itz gutxirekin
Egintza asko
Zirala onak
¡T'egiya!
Madalen lako
Berritxuakin
¡Ez «piya»!

«Errenteri'ko Xoxua» izenordekoa erabiltzen digu, Bilbo'n argitaratzen zan «EUSZKADI» egunerokoan idatzi zitun lanetan. Errenteri'ra joan giñan batean, emakume beneragarri batek eman zidan bertso bat, geiago ere bazirala ta eguneroko ortan argitaratua gaiñera esanaz.

Bertso orri jarraika asi giñan eta bere lan sail politak arkitu genitun gutxien uste gendun tokian. Eskerrik-asko, «Onintze».

«Euskal-Esnalea» «Euskalerrria» ta «Euskalerrriaren Alde» izan zitun gaiñerako olerki guztien agertoki, askotan izan zan saritua eta gorapatua, orduko euskal olerkarik onenetakoen artean arkitzen zan eta ogei ta bi urte zitun.

Ortik pentsa, zer maillatoko gizona zan Elzo-Azpiazu'tar Joxe, olerkari, musikalaria ta ezitzaile bikaina.

Bere eriotzarekin galtzaille atera giñan, bai Euskalerrri ta bai Errenteri. Azkeneko au batezere.